

Kaixo Gallarta!

Aurten guri, gazteoi, Dolores Ibarri institutuko gazteoi, jaiei hasiera emateko ohorea egokitu zaigu.

Gure institutuak 40 urte betetzen dituen urte honetan, gure ahots gaztea aukeratua izan da aurreko belaunaldien mezua gogora ekartzeko, gaur bezalako egun batean, jai giroan murgilduta.

Gure institutuaren izenak adierazten duen bezala, Dolores Ibarri, historiaz betetako izakia da. Gure herri langileak eta borrokalariak islatzen duen arimaren historia.

Gure aita-amak, aitite-amamen lekukoa eta euren kemena eta ekinari esker sortu eta bizirik irauten duena.

Eta hemen gaude gure herri euskaldunaz harro, txupinazoa botatzeko prest. Beraz, ondo pasa eta disfrutatu jaietan!

Gallartako herritik
Dator notizia
San Antonio eguna
A zelako jaia!

Hemengo jendea dala
Benetan alaia,
Giro aparta dago
Sutsu eta bizia

Herri langile honek
Aspaldi ganoraz
Lanean eta festan
Nahi du egin euskaraz

Berrogei urte bete
Mila ikasle hazirik
Hamar mila desio
Betiko bizirik.